

POTRET EGILEA

Potret egilea bazter batzuen potretaren egiten ari da: tindu eta koloreak aldean ditu, eta huxtukatuz ari da bere lanari... Kolorea har eta paperean heda... Anartean huxtua utzirik...

PINTREA: Bai bazter ederrak dira; haatik heien pintatzeak lanak ditu... Goazen aintzina...

Gizon bat eta muthiko bat heldu zaizko.

GIZONA: Errazu, jauna, barkamendurekin... Zu bide zira aipatu dautaten pintrea, potretak ere in momina santian egiten ditutzuna..'

PINTREA: Bai, jauna, bai, seguraz ere... Zure potareta nahi baitzinuen?

GIZONA: Ez, enea ez.

PINTREA: Mutiko pullit hunena beraz.

GIZONA: Ezta ere... Ene emaztearena.

PINTREA: Noiz beharko dut bada zure etxerat jin zure andrearen itxuraren hartzeko...

GIZONA: (*nigarrez*) Ez duzu gure etxetat jiterik... Gaixo Martxelina!

PINTREA: Zer duzu bada... andrea eri?

GIZONA: Eri baino areago, jaun pintrea; hila... (*hipaka ari dira aita semeak*)

PINTREA: Barkatu jauna, parte handia hartzen dut segurki zure bihotz-minean; bainan noiz hil zautzu andre gaixo hori?

GIZONA: Duela hiru urthe jauna... Ah jite borthitza zuen, gaixoak, bainan izigarri emazte prestua zen; ez dea hala Martxel?

HAURRA: Ba aita.

GIZONA: Xuka tzak begi hoik, hortik eta zintza hadi.

PINTREA: Zure andre zenaren potret ttipi bat badukezu, jauna, modela gisa?

GIZONA: Fotografia balinbanu ez nuke zure potretaren beharrik; ez jauna ez dut haren fotografiarik.

PINTREA: Zer eginen dut ba...

GIZONA: Nik behar dautzuta ofizioa erakutsi...

PINTREA: Haur hunek badueia ama zenaren iterik batere?

GIZONA: Sentimenduz eta adimenduz dena ama; begitartez eta trakaz dena aita ez dea ala muñur...

HAURRA: Ba aita.

PINTREA: Bon, bainan zuk ez duzu ahantzia nolatsu zitaken zure lagun zena...

GIZONA: Zer uste duzu ala burua mehatzen ari zaitala?

PINTREA: Jainkoak beira... Erranen dautazu bada nolakoa zen?

GIZONA: Ah, jite borthitza zuen, jauna, bainan emazte gixakoa hitz eta promes dautzut halako guti munduan aurki ditakela.

PINTREA: Zonbat gora zuken?

GIZONA: Zonbat gora? nik dakita? ni baino handiago zela uste dut bainan haren negurtzea ez zait sekulan gogoratu ere.

PINTREA: Bon, burutik eta paporaino eginen dut heren potreta; hola ez-gira engenatuko; handia zenez ala ttipia ez dugu jakitearen beharrik.

GIZONA: Arrazoin duzu; merkeago ere helduko zaut behar bada...

PINTREA: Erran gabea, beraz bisaia nola zuen biribil ala...

GIZONA: Bisai ona, jauna. Bere bultak bazituen bertzeak bezala, bainan bana bertze emazte ona.

PINTREA: Begitartea ilargia bezela zuena, errund-errunda, ala arroltzearen iduriko, «ovale» erraiten baitute...

GIZONA: «Ovale» errak hi Martzel zertifikatean ibili baihaiz, zer duk oval hori?

HAURRA: Ez dakit aita.

GIZONA: Jaun pintrea emazu bien arteko.

PINTREA: Eta begiak?

GIZONA: Biziki kokinak, jauna.

PINTREA: Ez naiz estonatzan... bainan zer kolore: beltz, urdin itsas-ferde, ala gaztainenopareak?

GIZONA: Pareak ba, jauna... Biga bazituen... Ez haurra, hi orhoit hiza?

HAURRA: Badakit ez zituela bi begiak berdin berdinak lunetak ere behar zituen.

GIZONA: Emoizu luneta beltzak, hola nihok ez du deusik ikusiko.

PINTREA: Egia zuk... Orai sudurra.

GIZONA: Bai sudur ona zuen; denak sumatzen, ihiziko zakurrak bezala...

PINTREA: Ba, bainan behar nuke jakin sudur hori sudur kako, zapal, makets; kaiku ala harroa zen...

GIZONA: (*bere buruarekin*) Makets, makets...

HAURRA: Aita zer da sudur maketsa?

GIZONA: Ago ixilik, ez duk hire afera... (*haurra muthurtzen da*) nola erran duzu jaun pintrea, sudur karro?

PINTREA: Ez karroa ez; harroa, eskalapoin puntaren idurikoa.

GIZONA: Bon, emazu bien arteko...

PINTREA: Lanak dire... Eta beharria?

GIZONA: Bai, beharri fina; ez zitzaion deus ere gordetzen ahal... Askotan errana diot: kurios eta pinterdi!

PINTREA: Haatik beharri horiek nolakoak ziren, jaun maitea? Beharri motzak ala?

GIZONA: (*koleran*) jakizu ez dela gure familian beharri motzik; denak eskualdun garbi garbiak gira... denak gero, denak oro... Ez dut onhartzen beharri motzik aiphatzea ere; komprenitzen duzu?

PINTREA: Ba, jauna, ba; beraz beharri luzeak emanen diozkagu.

GIZONA: Luzeak? Beharri luzeak? Baduzuia burutik? Jakizu gure familian ez dela astorik ez eta astañarik...

PINTREA: Barka zadazu, jauna, bainan biziki sentikorra-zaitut; denak makur hartzen dautzazu... Ea, haurra, amak nola zituen beharriak...

HAURRA: (*muthur*) Ez dazkiot sekulan ikusi... Ilek kukutzen ziozkatzen...

GIZONA: Jesus... hala da-eta.. Bon, gorde zaitzu beharri hoik; hola ez dukegu rnakurik.

PINTREA: Eta ahoa?

GIZONA: Mihi bat gaitza; ez zuen ixiltzerik behin hasi ta; etxen ez dut aditu ogi joiteko mekanikarik, ez eta ere gerlan mitraillusarik, harek bezenbat arrabots egiten zuenik; zer kalaka... Bainan, behar dut ailhortu halere emazte gixakoa zen bere maneran...

PINTREA: Jadanik erran dautazu hori... Bainan nahi nuke jakin aho handia ala ttipia zuenetz, bildua ala kefa?

GIZONA: Othoi jauna; emozu aho hori enea bezela, sudur azpian; ez zaitela har bisaia edertu beharrez; zen bezela aski zait...

PINTREA: Eta kokotsa?

GIZONA: Ba kokots fierra zuen eta kolaspe izpi bat ere, lepo paparda haste batekin... Ez dea hala muñu?

HAURRA: (*muthur*) Ez da ene afera.

GIZONA: Beha zazu haur ixpindola horri? Nun duk aitaren errespetua?

PINTREA: Eta eskuak?

GIZONA: Bo, eskuak... zalhuak zituen... Zifli zafla hasten zelarrik, harrigarria zen, ifernuko sugearen zitzuak zituen... eta larru idorra gero, hedekia kasik... Bainan fite pasatzen zitzion eta orduan bildotxa iduri zuen hain zen ezta eta goxoa.

PINTREA: Ez dautazu xehetasunik emaiten, ea erhi luzeak zituenetz ala laburrak...

GIZONA: Ah, ahanzter bainuen... erhaztun pollit bat bazuen erhi huntan... Bai ezkongei ginelarik erosi nion Ezpeletako feirietan; ehiza orhoit muñu orduan ginen urus orduan...

HAURRA: Ez, aita, ez, ez niz batere orhoit...

GIZONA: Hala duk; gaztegi hintzen orduan...

PINTREA: Horiek hola eginen dautzut abian zure andre zenaren potreta... Zaude hor ixtant bat; minuta baten lana da...

(Potret egilia ari da potret-aren egiten. Haurra hurbiltzen da lanaren ikusteko)

GIZONA: Martzek haugi hunat; utzak jaun hori lanean artzerat... Kontent hiza orai ikusiko baitut amaren potreta den den bezela?

HAURRA: Ba aita.

GIZONA: Zer den hatik esku airea... Beha zok nola ari den, ama begien aintzinean balu bezela.

PINTREA: Gorri poxi bat hemendik... Hortxet marra beltz bat... Urdin izpi bat la... la... xuri firfira bat matelan... la... jaun maitea, huna egina... hogoi-ta-hamar libera duzu pena..

GIZONA: *(dirua emaiten du eta potreta hartzen)*... Milesker...

PINTREA: Nik zuri...

(Aita semeak beha daude ixtant bat potretari eta nigarrez haaten biak xotinka...)

GIZONA: Gaixo Martxalina.

HAURRA: Gaixo Ama.

PINTREA: Ez nuen uste hain untsa kausituko nuela...

GIZONA: *(ixtant baten buruan)*... Jauna, horra potreta... atxik azu... pena sobera egiten daut... Gaixo Martxalina... nola kanbiatu den hiru urthe huntan *(nigarrez atheratzen da semearekin)*

FIN